



## ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO LAGUNTZEN ESKAERA (1. LERROA - OBRA PARTIKULARRAK)

<p><b>1. Aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskabidea aurkezten duen pertsonaren legezko ordezkaritza egiaztatzen duen agiria edo, hala badagokio, ordezkaritza emateko agiria. (<a href="#">Ordezkaritzaren Xedapena</a>)</li> <li>• <b>Higiezinaren jabetzaren</b> egiaztagiria (eskritura edo erregistroko ohar soil eguneratua).</li> <li>• Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (<b>OHZ</b>) ordainagiria.</li> <li>• Emandako <b>obra-lizentzia</b> edo haren eskaera.</li> <li>• Ordaindutako obren <b>udal-zergen eta tasen</b> ordainagiriak, halakorik balego.</li> <li>• Obrak hasi aurreko egoeraren koloretako <b>argazkiak</b>, birgaitu beharreko etxebizitzarenak / eraikinarenak.</li> <li>• Familia bakarreko etxebizitzaren/baserrien kasuan: <b>Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren (EIT)</b> txostena, Udalean aurkeztu izanaren udal-erregistroarekin. EITa EuskoRegiteren plataforman erregistratzen denean, ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea, eta ofizios egingo da egiaztapena.</li> <li>• <b>Onartutako obren aurrekontua</b> (kontratututako gremioena) partidaka banakatuta, bakoitzaren neurketa, prezio unitarioa eta BEZa adierazita. EITak 1., 2. eta 3. mailetako esku-hartzeak zehazten baditu, horien konponketa aurrekontuan sartu beharko da.</li> <li>• <b>Obra gauzatzeko egutegia</b>, gehienez ere bi urtekotan banatuta.</li> <li>• <b>Proiektu teknikoa</b>, ikus-onetsita, obrak hala eskatzen badu.</li> <li>• <b>Ordainsari teknikoaren aurrekontua</b>, obrak hala eskatzen badu (proiektua idaztea, obra zuzendaritza, segurtasuna eta osasuna koordinatzea, EIT...).</li> </ul>
<p><b>2. Diru-laguntza eta/edo mailegua eskatu behar bada, 1. puntuan adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Bizikidetzako udal-ziurtagiri</b> eguneratua (errola agiria), birgaitze-jarduketean xede den etxebizitzan bizi diren pertsona guztiak jasotzen dituen.</li> <li>• Eskatzailearen <b>hirugarrenaren alta agiria</b>, beteta eta sinatuta. (<a href="#">Hirugarrenaren alta</a>)</li> <li>• Eskatutako obra-aurrekontuaren hornitzaile desberdinen <b>hiru eskaintza ekonomiko</b> eta hautaketaren justifikazioa, diruz lagundu daitekeen gastua 40.000 eurotik gorakoa denean.</li> <li>• Idatziz egindako <b>obra-kontratua</b> (edo sinatutako eskaintza), diruz lagun daitekeen kostua 60.000 eurotik gorakoa denean.</li> <li>• Bizikidetzaren unitatea osatzen duen <b>persona bakoitzaren diru-sarreraren</b> egiaztagiria. <ul style="list-style-type: none"> <li>○ PFEZ aitortu baduzu: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena</b>, eskabide hau aurkezteko unean mugaeguneratutako azken ekitaldiari dagokion foru-ogasunean edo bankuan aurkeztu izanaren ziguilarekin.</li> <li>▪ Kotizaziorik gabeko prestazioak jasoz gero, dagokion ziurtagiria.</li> </ul> </li> <li>○ PFEZ aitortu ez baduzu: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kasu guztietan: <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Foru Ogasunaren ziurtagiria</b>, zergaldi horretan (eskaera hau aurkezten denean amaituta dagoen azken ekitaldian) PFEZ aitortu beharrik ez duzula egiaztatzen duena.</li> <li>- Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrek egina.</li> </ul> </li> <li>▪ Besteren konturako langilea bazara: <ul style="list-style-type: none"> <li>Zergaldi horretan kontzeptu guztiengatik jaso dituzun sarrera gordinak adierazten dituen dokumentua, enpresak edo enplegu-emaileak egina.</li> </ul> </li> <li>▪ Pentsiodunen edo edozein beka, prestazio edo subsidio jasotzen dutenen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne): <ul style="list-style-type: none"> <li>- Horien ziurtagiria, ekitaldi horri dagokiona.</li> </ul> </li> </ul> </li> </ul> </li> <li>• Beste administrazio batzuetatik jasotako edo, hala badagokio, <b>jaso beharreko diru-laguntza</b> emateko agiria.</li> </ul>



**2. motako obretarako – energia-eraginkortasuna hobetzea (gainera):**

- **Egungo** etxebizitzaren/eraikinaren **eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria** (obren aurrekoa) eta **etiketa energetikoa**.
- Lortu nahi den etxebizitzaren/eraikinaren **eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria (proposamena)**.

**3. motako obretarako – irisgarritasuna hobetzea (gainera):**

- Irisgarritasun-araudira egokitzeko justifikazioa (68/2000 Dekretua eta CTE DB- SUA).

**3. Irisgarritasunerako diru-laguntza berezia eskatuz gero, 1. eta 2. puntuetan adierazitako dokumentazioaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da:**

- Mugikortasun murriztua edo zentzumenezkoa duen **desgaitasunaren ziurtagiria**, hala badagokio.